

Esan daiteke euskarazko irakaskuntza edo euskal eskolaren aldeko ahaleginekin batera sortu zela emakumeen aitzindariotasuna euskal irakaskuntzaren alorrean. "Andereño" izena noiz eta nola jaio ote zen? Ziur jakitea ez da erraz, baina lehen euskal ikasgela haietara bildutako ikasle urriek asmatu edo egokitua izango zen inondik ere. Ordutik hona, emakumeen ekarpena euskal ikastetxe, eskola edo ikastoletan gehiengo zabalez nagusi izateaz gain, ezinbesteko ere izan da.

Aro modernoko eskola berriaren lege-oinarriak Frantzian (Guizot 1883, Falloux 1850, Ferry 1879) nahiz Espainian (Moyano 1857) ezarri zirenean, euskarak ez zuen onik izan euskal herrietan: haurrak elebidunarazteko edo, azken buruan, guztiz erdalduntzeko tresna boteretsua bihurtu zen eskola.

Ahul eta lotsati bada ere, euskal irakaskuntzaren aldeko eskeak edo,

gutxienik, eskolan euskaraz hitz egiteko debekuaren aurkako ahotsak berehala altxatu ziren Euskal Herrian. Esanguratsua da, adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1895eko azaroaren 12an onartutako erabakia: herrietako irakasleak izendatzeko ahala udalen esku uzteko eskatzen zion Madrilgo gobernuari, edo gutxienez irakasletzarako euskaraz jakin beharra ezartzeko; erabaki horren aldeko atera ziren baita Nafarroa nahiz Bizkaiko aldundiak ere.¹

Lehenengo euskal eskola edo ikastetxea R.M. Azkue apaiz euskaltzaleak sortu zuen Bilbon 1896an, baina ez zuen luzaz irauterik

E.Zipitria ikasleez inguratutik, 1958ko apirilaren 20an.



¹ Ikus *Euskal-Erria* 1895



lortu. Donostian, Migel Muñoak 1914an zabaldu zuen Koru'ko Andre Mariaren ikastetxea bizi-arnas luzeagokoa gertatu zen; haur gutxi batzuekin hasi eta berehala 200 ikasle eta gehiago izatera iritsi zen. Hutsetik hasitako proiektua urte gutxiren buruan ikastetxe sendo bilakatu eta hala iraun zuen Gerra Zibilera arte.

Eusko ikaskuntzak 1918an egindako Lehen Biltzarrak zabaldu zuen herri-agintari eta intelektual askoren artean euskal irakaskuntzaren beharra. Muñoaren ereduari jarraituz euskal ikastetxe gehiago zabaldu ziren Tolosan (1922), Errenterian (1928), Soroluzen (1932), Bergaran (1932), Iruñean (1932), Lizarran (1932), eta abar.

Errepublikara garaian abertzaletasun politikoaren eraginez, eta batez ere Euzko Alderdi Jeltzalearen jardueraren babesean euskal eskola edo ikastolen kopurua biziki handitu zen. 1932an Eusko ikastola Batza sortu zen inguru abertzaleen eraginez, eta euskarazko irakaskuntza indartsu hedatzen hasi zen, batez ere Gipuzkoan. Eredu euskaldun eta kristauko ikastolak

ziren, era guztietako kondizio eta dirubideko ikasleak onartzen zituztenak, eta pedagogia-teoria berriei irekiak.

Irakasle bakan eta bakartien isilpeko ekinetik sortu ziren gehienetan lehenengo ikastola haiek, emakume edo andereñoen ekinetik hain zuzen. Orduetik hona, katea ez da eten, eta euskal irakaskuntzaren zutaberik irmoena emakumez osatuta dagoela esan daiteke.

Eskuartearen duzun liburuska honetan emakume irakasle haien garrantzizko adibide batzuk bildu ditugu, ez denak. Ehundaka eta milaka haur euskaldun hezi dituzten andereñoen ordezkotzaren erakusle izango ahal dira!




Juana Mendizabal
andreak Eusko
ikaskuntzaren lehen
hezkuntzarako
batzordeko kide izanik,
eskolarako langalen
prestakuntzan lan
handia egin zuen.

ELBIRA ZIPITRIA IRASTORZA (1906-1982)

Zumaian jaio zen 1906ko maiatzaren 28an. Aita hargina zeukan eta etxean ez bide ziren oso dirudunak, baina beka baten bidez Donostiara joan eta lortu zuen irakasle-ikasketak egitea. Bigarren Errepublikaren denboran hasi zen - lanean Donostian, Migel Muñoarekin. Hura ikasle gutxi batzuekin hasia zen gela txiki batzuetan, baina ikasle - kopurua sobera handitu zelarik, 1924an Ategorrietako Karmen-Enera eraman zuten lehendabizi Koru'ko Andra Mariaren ikastetxea; berriro leku gabe ziren berehala, eta hiru tokitan banatu behar izan zuten ikastetxea azkenik: haur-hezkuntza Ikatz kalean (70 ikasle); mutikoen lehen hezkuntza Kanpandegi kalean (100 ikasle); eta neskatoen lehen hezkuntza Konstituzio plazan (40 ikasle), denak Donostiako parte zaharrea. Elbira Zipitriak haur-hezkuntzaren ardura hartu zuen Ikatz kaleko gela txiki haietan.

Xabierto, Lopez-Mendizabalek Tolosan argitaratua (1925). Lehen ikastoletako belaunaldi gehienek liburu honekin ikasi zuten irakurtzen.

Hiru ardatz izan zituen bere irakasle-lanetan: euskara, kristautasuna eta pedagogia-berrikuntza. Euskal Herrian inork entzuterik ere ez zuenean, Piaget, Freinet, Makarenko, Montesori eta Europako beste pedagogia-ikerleen teoriak ikasgelara eramaten saiatu zen.



4

Franco generala Errepublikako Gobernuaren aurka altxatu zenean, Iparraldera joan behar izan zuen ihes, Sarara. Gerra Zibilaren garaian Antonio M^a Labayen eta haren familiaren etxean bizi izan zen, Prefetenea izenekoan. Ez zuen hala ere bere lana eten: etxe hartan bizi ziren familietako lauzpabost haurrekin gela osatu eta irakaskuntzan jarraitu zuen.



E. Zipitriak gerra-garaian Saran izan zituen ikasleak (ezker-eskuin): Mattin Labaien, Imanol Laskibar, Ixiar Laskibar, Ramon Labaien eta Mirentxu Laskibar (Prefetenea etxean, 1937ko ekainean)

Ez zuen luzaz iraun Iparraldean: 1943. urtean Donostiara itzuli zen ezkutuan eta ikasle-talde apur batez ekin zion ostera ikastolari, bere etxean Prestatutako gela batzuetan. Zipitriaren lana eta diktadurapeko lehen urratsak funtsezkoak izan ziren, gerra aurreko tradizioarekiko lotura gorde eta Pedagogia-berrikuntza ikaragarria ekarri baitzuen.

Ikasliburu gisa gerra aurretik han eta

hemen argitaratutako ale apurrak baliatu behar izan zituzten:

-Isaac Lopez-Mendizabal



Umearen laguna irakurketa liburua (1931).

inprentariak Tolosan argitaratutakoak: Xabierto (1925), *Martin Txilibitu* (1931), *Umearen laguna* (1931).



Martin Txilibitu liburusk *Umearen laguna* liburu lodiagotik hautatutako pasarte osatu eta argitaratu zuen Lopez-Mendizabalek 1931n.

-Eusko Ikaskuntzan babesean argitaratutakoak: *Zenbakizti-lengaiaren ikastia* (1933, Bruño Argitaletxea).

-Pirmin Iturrioz apaizak kaleratutakoak: *Txomiñ-irakasle* (1931), *Lutelesti* (1932).



Zenbakizti-lengaien ikastea, aritmetika liburua (1933).

Guztiz urrats garrantzitsuak egin zituzten ikastolek hurrengo hamarkadan. ikasle-kopuruaren handitzeak dena esaten du: 1964an 596 ikasle ziren hegoaldeko ikastoletan, eta hamarkada hori bukatuta 1970ean berriz, 8.255 ziren.

Libururik ezean, ikasle bakoitzak bere koadernoan eramaten zuten, eta lehen zenbakiak lurrean egiten ziren egur-txotxak erabilita.

Egoera hori ez zen luzaroan aldatu. Zipitriaren eredura, 1950. urtetik aurrerako hamarkadan gisa bereko gelak zabaldu ziren Donostian bertan, eta 1957. urtetik aurrera Bilbon ere bai. Hain zuzen, Maria Angeles Garai andereñoak zabaldu zuen lehenengoa, Zipitriaren ondoan trebatu ondoren. Handik hiru hilabetera Agurtzane Alberdik zabaldu zuen bigarren gela San Nikolas parrokiak utzitako aretoan. Hortik sortu zen Azkue ikastola Julene Berrojalbiz eta Tere Rotaetxe bezalako gurasoen laguntza eskergaz. Eta orduko hazia Lauro ikastola bikaina bilakatu da.



María Angeles Garai.



Agurtzane Alberdi.

Etxebizitza partikularretatik ateratzen hasi eta ageriko ikastetxeetan ezarri ziren. Espainiako Ministerio de Educación y Ciencia delakoak 1968an ikasle bakoitzaren "libro de escolaridad" derrigortu zuenean, ikastola gehienek Eliza katolikoaren babesa bilatu zuten legeztatze bidea ziurtatzeko.

6

Zipitria agudo ohartu zen euskal ikasleak ezin zirela bide hartaz bazter gelditu, eta orduan erabaki zuen Donostian Orixen ikastola sortzea, gaur egun irakaskuntza publikoaren sarean sartuta. Arima eta gorputza Elbira izan zen, ia azken arnasa eman zuen arte. Hernaniko Urumea ikastola ere sortzen izugarri lagundu zuen. Guztira 50 urte egin zituen euskal irakaskuntzan.




E. Zipitriaren ikasle batek egindako koaderno.

Ez zen, gainera, hurrekin bakarrik aritu; helduekin ere bai. Gau-eskola zeukan antolatuta, batez ere guraso euskaldunak alfabetatzeko. Aditza ikasi, euskal literatura irakurtzen hasi, eta halakoak egiten zituzten ikasle haiek, Beste askoren artean, bertatik igaroak ziren Markel Izagirre, Maria Anjeles Esnaola, Felitxu Eraso, Mañoli Aleman, Faustino Lasagabaster, Imanol Larrea, Manuel Mari Hernandez, eta beste asko.

Joxe Migel Barandiaranen miresle izan zen Elbira, baita Nicolas Ormaetxea, *Orixen* zenaren adiskide mina ere. Biokin harreman estua izan zuen.

Leoi-kumea, E. Zipitriak Parison argitaratua (1948), Orixeren itzulpenaz



Militantzia politikoari ere bizitza osoan eutsi zion. Jeltzale porrokatua, ez zuen Alderdi Egun eta Aberri Egun bakar batean hutsik egingo.

Lana ikaragarri eginda hil zen, 1982ko abenduaren 26an, hirurogeita hamasei urte zituela.



E. Zipitriaren lau ikasle idazketa-lehiaketa batean, Donostiako liburutegian, 1959ko irailean.

ELISABETE MAIZTEGI ARRIZABALAGA (1911-1996)

Soraluzen jaiotakoa izan arren, aita hil zitzaionean Donostiara joan zen bizi izatera umetan, eta bertan egin zuen bizitza osoa. Gazterik, Eskola Normalean maistra izateko ikasi zuen Gerra Zibilaren aurretik. Ikasle garai haietan Elbira Zipitria ezagutu zuen, eta harekin hasi zen alfabetatzen eta euskara sakontzen.

Gerra artean hasi gabe zelarik, bere lehen irakasle-lana Areson izan zuen. Orduan, Nafarroako eskoletan euskaraz egitea debekatuta egon arren, ahal zen gehiena egiten zuen umeekin -kentak, antzerkia, eta abar-. Hurrekin egindako antzerki-lan baten kronika polita dago *El Dia* egunkarian (1936-06-17), euskaraz eta Uzturrek sinatua. Garai hartan asko lagundu zion Juanita Ziak, Leitzako maistrak; hura ere oso euskaltzalea zen, eta elkarrekin joaten ziren biak Tolosara Lopez Mendizabalenera euskarazko ikasliburuak erostera. Maiztegi nesken irakaslea zen, eta Juan Erentxun -Eloi Erentxun pintorearen anaia-, mutilena.

Euskaraz aritzen zirela eta, saiaketa izan zuten. Lehendabizi, Elisabete Maiztegi Abaurregainera (Aezkoa, Nafarroa) "konfinatu" zuten, eta azkenerako agintari nafarrek irakasle izatea debekatu egin zieten biei. Elisabetek ez zuen irakaslegora itzultzerik izan Franco hil arte.

7



8

Maiztegi 1935eko abenduaren 12an ezkondu zen Florentino Garalaide Altolagirre ataundarrarekin; hura Areson zegoen sendagile eta han elkar ezagututa ezkondu ziren. Gerra piztu zenean, Ataunera joan ziren, eta han bizi izan ziren 1942an Donostiara joan ziren arte.

Donostian, seme-alaba gazteenentzat euskarazko eskolaren bila hasita, berehala elkartu zen berriro Elbira Zipitriarekin. Garai hartan, andereño Elbiraren ikastolaren aldeko guraso eragileetarik Axentxi Goenaga eta bere senarra Jose Migel Zumalabe izan ziren. Carlos


Santamaria, J.M. Zumalabe eta abarren eraginez Santo Tomas Lizeoa sortu zenean Maiztegi hara bidali zituen bere seme-alabak.

Irakaskuntzaz gain, bestelakoetan ere jardun zuen Maiztegi. 1960. urtearen inguruan, Loiola Irratia Donostian sortu zuenetakoa izan zen, Kanpandegi kalean, Gerardo Bujanda, Muñoz, Etxebeste, Mendizabal okina eta beste zenbaitekin batera.

Nicolas Ormaetxea, *Orixe* hil zenean, 1961ean, Maiztegi eta beste euskaltzale batzuk, bakoitzak 100 bana pezeta jarrita lortu zuten hilobi ederra erostea; Zumalabek diseinatu zuen, eta bertan egon zen Orixeren gorpua Orixara eraman zuten arte.

Gezurra badirudi ere, Franco hil ondoren Elisabete Maiztegi borroka egin zuen bere irakasle-lana berreskuratzeko. Horrela, 1978an Jaeneko herri txiki batera bidali zuten, baina plaza jabetzan haduta, Donostiako Zuhazti Eskolara etorri zen. Hiru urte egin zituen bertan pozaren pozez haur txikiekin, 70 urte betetzean derrigor erretiratu behar izan zuen arte. Hala ere, ez zioten inoiz erretiro-saririk jasotzeko eskubiderik aitortu!

Laurogeita lau urte zituela hil zen, azken ordura arte burua argi zuela, 1996ko uztailaren 19an, Donostian.



MARIA DOLORES GOYA (1913-1986)

Euskal irakaskuntzaren historian zati garrantzitsua osatu zuen Donostian Maria Dolores Goya andereñoak. Elbira Zipitriarekin batera, ikastolen eta euskal eskolen zutaberik nagusia izan zen.

Donostian jaioa zen 1913ko otsailaren 19an. Gazterik, hemeretzi urte besterik ez zituela lortu zuen irakasle-titulua 1932an. Berehala, EAJren Euzko-Etxean (Etxaide kalean) hasi zen lanean, eta gero Groseko auzoan, Usandizaga kalean. Diputazioaren "Escuelas de Barriada" euskal eskola publikoetan sartzeko azterketa gainditu ez zuelarik, 1936. urte hasieran Estatuko maistra izateko oposiziotan hasi zen; azterketak amaitu aurretik, ordea, hartu zuten Donostia Francoren aldeko militarrek. Bilbora joan zen orduan M. Dolores Goya, eta Plentziako eskola publikora bidali zuten lanera frankisten bonbaketak hasi arte.

Bere ikasle eta guzti, *La Habana* itsasuntzian abiatu zen Britainia Handiko Wight uhartera; zazpi hilabete egin zituen bertan. Handik, Frantziara, eta gerra bukatu zenean, 1940an itzuli zen Donostiara.

Ez zen denbora luzean geldirik egon: ederki kostata, 1941ean baimen guztiak eskuratu zituen Ergobian eskola berria zabaltzeko; erdarazko eskola "unitario" horietakoa zen noski, baina isilka Goyak eskolak erdi bana ematen zituen, gazteleraz eta euskaraz. Bi urte geroago, 1943an eskola hura itxi egin zen, eta Goyak utzi egin behar izan zuen irakaskuntza.




10

Ez luzarorako ordea: 1951ean Donostian Carquizano kaleko ikastola sortu zuen, Elixabete Maiztegi andereñoaren laguntzaz. ikastola horrek izenik ere ez zeukan, guztiz isilpekoa baitzen; "Carquizanoko ikastola", "Groseko ikastola" edo "Goyatarren ikastola" esaten zioten. Jakina, bere etxean zegoen ikastola, kale horretako 8. atarian. Hamasei bat metro karratuko logela prestatu, eta hantxe hasizen 10 ikaslerekin, denak 9 urtez beherakoak. 1964an bere alaba Miren Egañak magisteritza bukatu zuenez, amarilaguntzen hasi zitzaion aldameneko gelan.

Hurrengo urtean, 1965ean etxe azpian behegaina alokairuan eskaini zien ikastolako guraso izandako batek, eta hara aldatu zen ikastola; berriro ere, bi gela txiki. Pixkanaka, aldameneko lokala ere hartu zuten, eta horrela jarraitu zuten 1968an hezkuntza-lege berriaren arabera ikastola legeztatu beharra etorri zen arte. Orduan, Jose Maria Mujika San Inazioko parrokoak lagundu zien, eta Elizaren babesean Colegio Parroquial Iñigo de Loyola izenaz legeztatu zen 1970ean.

Dirubide bakarra gurasoek ordaindutako hileko saria zuten. Hasieran, 20 pezeta hilean, gero bost duro; 1975ean, 500 pezeta. Laguntzak eskatu bai, eskatzen zizkioten aurrezki kutxari eta, baina sekula jasotzen ez. Kontraturik edo segurtasun sozialik ez zuten izan ikastola legalizatu zen arte.



Hasieran Xabiartxo eta Pirmin Iturriotzen *Txomiñ-ikasle* zituzten ikasliburu bakarrak. Durangoko liburu azokara joan, eta handik Julene Azpeitiaren *Umiaren lehenengo aizkidia* ere eskuratu zuen M. Dolores Goyak; bizkaieraz zegoen idatzita, eta umeak zelebren samar ibili omen ziren "Begoñako Ama neskutza Bizkayaren zaindarija" bezalakoak gipuzkerazko jota garratzez irakurtzen... Geroago, Bernardo Estornes Lasaren *Sabin euskalduna* irakurgaia eta Pirmin Iturriotzen *Lutelestia* geografia-liburua ere izan zituzten.



Umiaren lehenengo aizkidia Bizkaiko euskeraz irakurtzen ikasteko (1897).



Lutelesti, Pirmin Iturriotz apaizak argitaratua (1932).

11



Txomiñ-ikasle, Pirmin Iturriotz apaizak argitaratua (1931).

1970an gaixoturik, Maria Dolores Goyak utzi egin behar izan zuen irakaskuntza; bere alaba Miren Egañak jarraitu zuen 1975era arte, baina urte hartan ikastola ixtea erabaki zuten, ikasleei Donostiako beste ikastoletan lekua bilatu ondoren.

Donostian hil zen Goya andereñoa, 1986ko abuztuaren 29an, hirurogeita hamahiru urte zituela.

MARITXU BARRIOLA IRIGOIEN (1907-1988)

12

Abelino Barriola antzerkigilearen alaba zen, donostiarra noski. 1907ko abenduaren 5ean jaioa, pianoa eta erizaintza ikasi zituen. Gaztetan hasi zen Ramon Labordak Donostiako Kursaal antzoki zeneko azpietan antolatzen zuen *Poxpoliña* jaietan laguntzen.

Gerra sortu zenean, familia ihesi joan zen Donibane Lohizunera. Frantses pixka bat ikasita, 1937ko uztailean Intxaustik Jatsun antolatutako udalekutan hasi zen zuzendari-lanean. Laguntzaile Lupe eta Tere Urkiola izan zituen, eta kaperau Gelasio Aranburu.

Alemanak iparraldera inguratzen hasi zirenean, baporean Venezuelara joan ziren Barriolatarrak. Aita Abelino 1944an Paben hil zenean, Donostiara itzuli ahal izan zuen Maritxu Barriolak. Familiak zeukan zapatadendan lan egin zuen administrazioa eramaten; maiz zapatadenda hori euskaltzale donostiarren biltoki izan zen.

Maritxu Barriola Irigoien



Euskaltzale eta kristau suharra zen aldetik, Maritxu Barriolak laguntza handia eman zuen Elizako euskal liburuak argitaratzeko. 1950ean *Urte guziko meza bezperak* latinetik euskaratzeko lanak ordaindu zizkion Nicolas Ormaetxea, *Orix*e zenari: 1953an, berak ordaindu zuen *Kristoren antz-bidea* edo *Kempis* izeneko liburua ere, Larrañaga apaizak euskaratua.



E. Zipitriaren ikasleek erabili ohi zuten kristau-ikasbidea (1949)

13

Frantziako Tours-en inprimatu, mendiz ekarri eta Valentzian enkoadernatuak izan ziren liburu haiek. ikastoletako haurrentzak *Aurren eliz-liburutxoa* argitaratu zuen bere kargu Donostian 1949an, Gasteizeko gotzainaren *imprimatur* eta guzti. *Xabierto* ere berrargitaratu zuen, Lopez-Mendizabali baimena eskatuta.

Euskal udalekuen aitzindari izan zen Barriola, Joanito Goia hernaniarrarekin batera, 1965ean Arabako Barrian zegoen klausurako komentuan. Hortik sortu ziren gaur egun han eta hemen antolatzen diren udaleku guztiak.



Aurren eliz-liburutxoa, M.Barriolak argitaratua (1949)

Oso emakume alai eta independentea zen, eta bakarrik bizi izan zen beti. Udalekuez gain, kristau-mugimenduan oso sartuta egon zen. Besteak beste, euskal preso sozialei laguntzeko zerrendak egiten zituzten herriz herri, Iñaki Azpiazu eta beste tadean zirelarik, eta herriko parrokoen bitartez laguntza espetxeetara bidaltzen.

Donostian hil zen 1988ko irailaren 17an, laurogei urte zituela.

Donostian sortu zen 1905eko azaroaren 21ean. Gazterik umezurtz gelditu zelarik, 15 bat urte zituela edo, osaba-izeben etxean bizi izan zen Tolosan. Bere osaba hori Doroteo Ziaurritz sendagile eta politikari euskaltzale ezaguna zen. Jakina denez, Euzko Alderdi Jeltzaleko lehendakari izan zen 1935etik 1951an Donibane Lohizunen hil zen arte.

Etxeko giro hartatik zetorkion, noski, Pilar Sansineneari euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna. Hurbil-hurbiletik bizi izan zuen Tolosako lehen ikastolaren sortzea. Euzkel-Ikastola, hala baitzuen izena, 1922an sortu zuen tolosar euskaltzale talde batek: Doroteo Ziaurritz bera,

Antonio M^a Labayen -Pilar Sansinenearen koinatua, hain zuzen-, Pepe Eizagirre, Jexux Eloseggi, Periko Laskibar, Isaac Lopez-Mendizabal, Jose M. Agirre, *Lizardi*, Juan Antonio Irazusta, Luis Sese eta Patrizio Orkaiztegi ziren talde hartan, besteak beste. Eusko ikaskuntzaren laguntzaz ikastolak etenik gabe iraun zuen 1936ko gerra bitartean.

Tolosako ikastolako umeak
1930.urtean. Haiekin Maria
Dolores Arbilla eta Juanita
Goikoetxea andereñoak.



Pilar Sansinenea hasiera-hasieratik izan zen ikastolaren urgazie, Iñaxi Munita eta beste andereñoei laguntzen, ikastolak bere gelak Gorriti plazan zituenean. Neska-mutilak batera hezitzea onartu zuen lehen ikastolatakoa izan zen Tolosakoa: tradizio karlista sakona zuen herrian oztopo eta eragozpen ugari gairitu behar izan zituzten hartara iristeko. Administrazio-lanak Antonio M^a Labayenek egiten zituen, eta Xebe Peña mendizale ospetsua ibili ohi zen etxez etxe, ikasle-sariak biltzen.

Primo de Rivera generalaren diktaduraren garaian (1923-1930) ikastolak arazo ugari izan zuen zabalik jarraitzeko. Besteak beste, diktaduraren ordezkari zena Tolosan, Macapilac izeneko militarra, ikastola ondoan zegoen Ereñaga Hotelean bizi zen, eta ikastolako haurren euskal kantak zakurren zaunkaren pareko zirela eta, ikastola itxi egin nahi izan zuten. Zorionez, lekuz aldatzea aski izan zen, eta ikastolako gelak Laskorain kalera joan ziren; hodik datorkio izena egungo Tolosako ikastolari.



Ezker-eskuin:
Pilar Sansinenea,
Elbira Zipitria eta
Iñaxia Munita,
gerraurreko
argazkian.

Tolosako mugimendu euskaltzalea oso loturik egon zen Euzko Alderdi Jeltzalearekin. Horren kariatara, Pilar Sansinenea gaztetarik egon zen sartuta polotika-gazetan; 1931an Emakume Abertzale Batza sortu zenean Tolosan, lehendakari izendatu zuten.

Eusko ikaskuntzak berebiziko garrantzia izan zuen urte haietan, ikastoletan erretze bidean zen hazia ihar ez zedin. Indarrak bildu eta pedagogia berrietan sakontzeko bilkurak maiz antolatzen zituen, eta horietan harreman estua izan zuten hasieratik, Inaxi Munitak, Elbira Zipitriak eta Pilar Sansineneak.

Gerra aurretik Jexux Elozegi argazkilariarekin ezkondu zen, eta ordutik aurrera lehen baino indar handiagoz murgildu zen politika-lanetan. Gerra sortu eta frankistek Tolosa hartu zutenean, Hondarribira joan ziren, eta handik Ziburura lehendabizi eta Sarara gero. Eusko Jaurlaritzak antolaturik, 1938an Eresoinka abesbatzan ibili ziren senar-emazteak Europan barna euskal izaeraren berri ematen.

Lizardi hil ondoko belia Tolosan 1933ko martxoan 26an. Ezker-eskuin: Antonio M. Labayen, Esteban Urkiaga Lauaxeta, Nicolas Ormaetxea Orixe, Lupe Urkiola, Antonio Garmendia, Pilartxo Sansinenea, Jose Ariztimuño Aitzol, Doroteo Ziaurritz eta Fausto Leunda.



Bigarren Mundu Gerraren aurretik, bi urtez (1939-40) senarra Tarbeseko (Frantzia) arma-fabrian ari izan zen lanean, baina alemanen eraso gertu zela eta, Euskal Herrira itzultzea erabaki zuten; Jexux Elozegi "batallón de trabajadores"-ean Oiartzungo Aiako errepidean lan egitera beharturik egon zen hilabete batzuetan, noski. Pilartxoren familiak Pasaia Donibanen arrain-olio bitaminikoak egiteko fabrian urte batzuetan lan egin ondoren, senar-emazteak Donostiara joan ziren bizi izatera, Ulia auzora.

Garai haietan Jexux Elosegik parte garrantzitsua izan zuen Arantzadi Zientzia Elkartearen sortzen (1947. urtean); sortu berriaren idazkari izendatu zuten, eta hala izan zen hamar urtez.

Senarra gaixotu zenean Tolosara itzuli ziren betiko. 1979an alargundu zelarik, Pilar Sansineneak ez zion inoiz utzi euskaltzaleei laguntzeari. Bertan hil zen 1997ko abuztuaren 28an, laurogeita hamaika urte zituela.

17

FAUSTINA KARRIL AROZENA (1912-1997)

18

Gerra ondoren Gipuzkoan eta bereziki Donostian sortutako etxe-ikastola horien eredu bizia izan zen Faustina Karril. Donostiako aspaldiko arrantzale-familia baten barruan jaioa 1912ko abenduaren 24an, hamahiru senide zirelarik ez zuen ikasketarik egiteko aukera izan gaztetan. Irakaskuntzarako joera, ordea, oso gazterik sortu zitzaion. Elbira Zipitria baino urte batzuk gazteago zenez,

ezagunak zituen hark gerra aurretik Donostian egindako esperientziak, eta zerbait ikastera inguratu zen harengana.



.Karril erdian, ikasle eta gurasoekin batera Donostiako gazteluan, San Juan eguneko ospakizunean.



F.Karril Santa Mariako eliz atarian, San Sebastian egun batean.

Donostiako harresien azken lekukoen parean den Mari kaleko etxe batean bi gela alokairuan hartu zituen 1951n, eta hantxe hasi zen haur-talde batekin bere "ikastolan" lanean. Familia euskaltzaleen umeak ziren, berarengan konfidantza egin eta hara bidalitakoak; 3 urteko 20 bat haur ziren hasieran. Geroago 6 bat urterekin edo, andereño Elbira Zipitriaren ikastolara joatekoak zirenez, Faustina Karrilek jolasean hezitzen zituen ume txiki haiek: eguraldiak debekatzen ez zuen guztietan, haurrak hartu eta gaztelura edo hondartzara joango zen. Kantuek, ipuinek, txotxongiloak eta gisakoek osatzen zuten "ikasi" beharrekoa.

Gainerako ikastola guztiek bezala, 1968an Espainian hezkuntzako legeria berria ezarri zenean Faustina Karrilek Elizaren babesari bilatu zuen bere ikastola legezatzeko. Horrela, izenez bederen Santa Maria Elizako parroikia-eskola bihurtu zen.

Eskola-liburuak, berriz, Elbira Zipitriaren eraginpean sortu berria zen Orixe ikastolaren bitartez bideratzen zituzten.



Bi ezaugarri ditu etxe-ikastola hauen esperientziak: alde batetik, frankismoaren urterik beltzeenetan sortu zirelarik, orduko familia euskaltzaleen ausardia ez zen makala, haurrak ia era klandestinoan ikastola haietara eramateko; eta bestetik, luzaz iraun zuten gisa horretako ikastolak, Faustina Karrilek bere azken ikasturtea 1980 -1981ean egin baitzuen.

Orduan, erretiroa hartu zuen Faustinak, baina ez irakaskuntzan aritu izanagatik: zer zetorkion garaiz iragarrita, zahar-saria jasotzeko eskubidea izateko bere kabuz ordaindu izan zuen kuota bizi osoan, jostun gisa lanean ari izan balitz bezala.

Donostian hil zen 1997ko martxoaren 29an.

F.Karril ikasle batekin, bere azken ikasturtean (1980).

